




2008^{ko}
MEMORIA

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA<





SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

ERAKUNDE BAZKIDEAK:



EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta
Portaera Zientzien Metodologia Sailak



Udako Euskal Unibertsitateko
Soziolinguistika Saila (UEU)



ELHUYAR Aholkularitza



AZTIKER Ikergunea



EMUN Kooperatiba



ARTEZ Euskara Zerbitzua



Eusko Ikaskuntza



EHU-UPVko Soziologia II Saila



Mondragon Unibertsitateko
Humanitate eta Hezkuntza
zientzietako Fakultatea



Topagunea.
Euskara Elkarten Federazioa.



Nafarroako Euskara Teknikarien
Lanbide Elkartea (NETeLE)



Tolosako Udala



Hernaniko Udala



Gipuzkoako Urtxintxa eskola



Euskaraz Kooperatiba
Elkartea (AEK)



Euskara Kultur Elkargoa



Gipuzkoa Donostia Kutxa



EHU-UPVko Hezkuntzaren
Teoria eta Historia Saila



Euskal Herriko
Ikastolen Konfederazioa



EBETE hizkuntza-zerbitzuak





1	Sar hitza	9
2	Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera	11
3	Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa	12
3.1	Antolaketarako eredia: Klusterra	12
3.2	Soziolinguistika Klusterraren osaketa	12
3.3	Soziolinguistika Klusterraren antolaketa	13
4	Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak	14
5	Soziolinguistika Klusterraren mapa estrategikoa	15
6	Garatutako proiektuak	16
6.1	Datuak bildu eta bateratu	17
6.1.1	EDB	17
6.1.2	Arabako datu soziolinguistikoen azterketa	17
6.2	Gazteen esparrua	18
6.2.1	ARRUE proiektua	18
6.2.2	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa	18
6.3	Arlo sozioekonomikoa	19
6.3.1	ERALAN proiektua	19
6.3.2	Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak bilketa proiektua	20
6.4	Familia transmisioa	21
6.4.1	Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa	21
6.4.2	Bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa proiektua	21
6.5	Hausnarketa teorikoa bultzatu	22
6.5.1	Hausnartu. Soziolinguistika sariak	22
6.6	Ezagutzaren dibulgazioa	23
6.6.1	Bat Soziolinguistika Aldizkaria	23
6.6.2	Soziolinguistika Klusterraren webgunea	24
6.6.3	SOZIOLINGUISTIKAZ berri papera	24
6.6.4	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan	25
6.6.5	Soziolinguistika eskuliburua	25
6.6.6	Soziolinguistika jardunaldia	26
7	Harremanak	27
8	Lankidetzak	28
9	Eskainitako zerbitzuak	28
9.1	Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak	28
9.2	Euskaini Neurketak	28
10	Soziolinguistika arloko sarea eratzen	29
11	Urteko helburuak eta balantzea	33
11.1	Adierazleen balantzea	34





1
Sar hitza

Iragarki batek dioenez, aurrera doan herria omen da geurea. Soziolinguistika Klusterra ere, pixkanaka pixkana aurrera doan erakundea dela esan genezake. Sendotzen ari den erakunde gaztea da gurea, ez, ordea, zailtasunik gabe. Atzera, 2008ari begira jartzen garenean, urteak utzi dizkigun une gozoak eta ez hain gozoak datozkigu gogora.

Gozen artean, dudarik gabe, otsailean egin genuen jardunaldia jarri behar genuke. Soziolinguistika arloko 100 aritu eta aditu artean, gure proiektuen berri eman eta soziolinguistikako hainbat gairen inguruko hizketaldiak eta eztabaidak izan genituen. Bertan egondakoek eta Klusterreko kideok atera genuen ondorioa argia izan zen: soziolinguistika arloa desegituratuta dagoen honetan, halakoen beharra nabaria dela, hain zuzen.

Horrekin batera ikusi ahal izan dugu Soziolinguistika Klusterra ari dela pixkanaka soziolinguistika arloan erreferentzia irabazten. Datu eskaera, informazio eskaera edo bestelako kontsultak inoiz baino gehiago jaso ditugu, eta gainera, lankidetzat berrietarako aukerak zabaldu zaizkigu. Hauek guztiak, eginiko lanaren fruitua izan direla uste dugu eta zalantza gabe, bide bere-tik segitzeko ilusio pizgarri dira.

Esan bezala, aurtengoak izan du guretzat hain gozoa izan ez den alderdirik ere. Gure erakundeak dituen ahuldade edo mugak begien bistan izan ditugu. Izan nahi genukeenaz eta izan ahal dugunaz, oraindik zer hitz egin ugari dugula ikusi dugu. Argi baitago, soziolinguistika arloa bultzatu, gartu eta egituratzeko apustuak ez duela behar besteko sendotasunik gaur gaurkoz. Eta Euskadirentzat 2008a berrikuntzaren urtea izendatua izan bada ere, arlo honetan, berrikuntza gutxi.

Aldiz, berrikuntzaren aldeko joera honek guri ere onurak ekarri diezazkigukeela uste dugu. Argi baitago, berrikuntza lantzeko, kluster egituren aldeko apustua egiten dela:

“Berrikuntzaren Euskal Sistemaren eragile guztien arteko harremana eta konexioa hobetu behar da, enpresei zerbitzuak eta laguntza eskainiko dizkien sare sendoa osatzeko.

...

— Protagonismo handiagoa eman behar zaie clusterrei, prozesua errazten duten bitarteko eragile gisa” (Euskal Berrikuntza-Sistemaren Liburu Zuria, 2005)

Gainera, orain artean, berrikuntza kontu hauek batez ere industria sektorean edo teknologien alorrean landu beharrekoak zirela ikusten bazen ere, badirudi azken aldian gero eta nabarmenagoa dela giza eta gizarte zientzien arloko jardueretan ere ikerketa, garapena eta berrikuntzarako baliabideak jartzea beharrezkoa dela. Hortaz, ondorengo urteetan berrikuntzaren aldeko joerak mantentzen badira, haizea alde izan dezakegula pentsatzeko arrazoiak, izan baditugu.

Horretarako, noski, beharrezkoa da Soziolinguistika Klusterra berrikuntza kontuetan atzean ez geratzea. Asmo horrekin, jada, berrikuntza agenda lantzen hasiak gara eta 2009ari begira Innobasque-ko kide egitea aurreikusten dugu. Ilusio eta gogo faltarik ez dugu, beraz, erronkaz beteriko urte berri bati ekiteko.

Bukatzeko, lerro hauetatik gure ongi etorria eman nahi diegu, Soziolinguistika Klusterreko kide izateko erabakia hartu duten Ebete elkarteari eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioari. Gure jardunean jarri duten konfiantzari, baliagarriak suertatuko zaizkien ekarpenekin erantzutea espero dugu.



Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera

Soziolinguistika kluster baten sorrera proiektu hau, 2000ko azaroan “Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen” SIMPOSIUMAREN erakunde antolatzaileek eginiko azterketaren inguruan egituratzen da. Bertan, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa eta zabalpen gune baten gabezia eta beharra jasotzen da, Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakundeei eta taldeei –pribatu, publiko zein gizarte mailako– arlo zientifiko-aplikatutik laguntza eskainiko diona, beren jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta, ondorioz, beren emaitzak hobetzeko.



Geroztik, Soziolinguistika Klusterra sortzeko ahaleginean **bat egin dute hainbat eragilek**. Horien artean, NUP-UPNAko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, UPV-EHUko Soziologia I eta II Sailak, Mondragon Unibertsitateko Humanitateak Fakultatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte eta SEI Elkarte. Gerora proiektuarekin bat egin dute Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak, UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portuera Zientzien Metodologia Sailak eta Eusko Ikaskuntzak.



Azken urteetan Klusterra sortzearen aldeko bide horretan gaiaren inguruko eztabaidan sakontzen eta adostasunak bilatzen lan egin da: arloko eragileekin aurrez-aurreko bilerak egin dira, eztabaidarako foroak antolatu eta lankidetzarako hitzarmenak sinatu (2001eko maiatzean «Soziolinguistika Institutua Klusterra»ren aldeko Lankidetzaproto-koloa, 2001eko azaroan «SIKeraiki» Lan-Jardunaldia...).

Azkenik, 2004ko martxoaren 30ean Soziolinguistika Klusterraren eraketa batzarra egin zen Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkean.

3

Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa

Antolaketarako eredia: Klusterra

3.1

Soziolinguistika Klusterraren eraketarako, izenak berak adierazten duenez, **klusterraren eredia** hobetsi da. Izaera guztiz ezberdina duten entitateak organizatiboki elkarren artean lotzeko baliagarria izan daitekeelako eta, gainera, badagoelako lehendik Euskal Herrian beste kluster batzuen eredia –hala nola Ezagutzaren Klusterra– oso lagungarri gerta dakigukeena.

Klusterra taldekatze bat da, esparru jakin batean elkarren artean nolabaiteko lotura, harremana edo interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen arteko taldekatzeta. Normalki enpresak izaten dira klusterraren muina eta haiekin batera administrazioak, unibertsitateak, formazio zentroak, elkarte profesionalak, edota zerbitzu bereziak.

Kluster baten **funtzioa da kooperazio egiturak antolatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea** eta berrikuntza sustatzea, horrek guztiak dagokion sektorearen garapenari positiboki eragin diezaion. Klusterrek sinergiak sortzen dituzte. Horrela, erakunde desberdinek euren kabuz aurrera atera ezingo lituzketen proiektuak bidegarri egin litezke.

Soziolinguistika Klusterraren osaketa

3.2

Lehen aipatu bezala, hainbat erakunde bat egin zuten Soziolinguistika Klusterra sortzeko beharrarekin. Batzuk hasieratik izan genituen erakundea sortzeko bultzatzaile eta beste batzuk berriz, gure erakundeak egin zezakeen lana eta lan horretatik eurek lor zitzaizketen etekinak aztertuta egin ziren bazkide. Egun, 20 erakunde bazkide eta 110 norbanako ditugu. Jarraian duzue Soziolinguistika bazkide erakundeen zerrenda:

Bazkide Sustatzaileak

1. Emun Kooperatiba Elkarte
2. Elhuyar Zubize SLU
3. HUHEZI Koop.E
4. Topagunea. Euskara Elkartearen Federazioa
5. Eusko Ikaskuntza
6. Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
7. Tolosako Udala. Euskara Zerbitzua
8. Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
9. Gipuzkoa Donostia Kutxa
10. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)
11. AZTIKER Ikergunea
12. ARTEZ Euskara Zerbitzua

Bazkide Erabiltzaileak

1. Hernaniko Udala. Euskara Zerbitzua
2. EHU-UPVko Soziologia II saila
3. EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak
4. Euskara Kultur Elkargoa
5. EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
6. Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte (NETeLE)
7. Ebete hizkuntza-zerbitzuak
8. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
+ 110 norbanako

Soziolinguistika Klusterraren antolaketa

3.3

Soziolinguistika Klusterrak hiru organo nagusi ditu. Batetik, Batzar Orokorra dago. Hemen aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen dira. Honekin batera, hiru urtean behin Batzar Orokorreko kideak (bazkide guztiak) Soziolinguistika Klusterraren egitasmo estrategikoaren osaketan parte hartzeko aukera dute, horretarako berariaz antolatutako bileren bidez.

Bestetik, Zuzendaritza Batzordea dugu. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa planean ezarritako helburuak betetzeko uanean-uean beharrezko erabakiak hartu eta beharrezko egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. 2008an ondorengoek osatu dute:


- Aizpea Otaegi (Elhuyar Aholkularitza). Lehendakaria
- Aitziber Sarasola (AEK)
- Iker Salaberria. Idazkaria
- Pello Jauregi (EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila)
- J. Inazio Marko (Eusko Ikaskuntza)
- Iker Martinez de Lagos (Topagunea)
- Jaime Altuna (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola)
- Imanol Larrea eta Olatz Olaso (Emun Kooperatiba)
- Joxan Diz (UEU)
- Mikel Irizar (Gipuzkoa Donostia Kutxa)

Bukatzeko, proiektu eta jarduera desberdinen garapenez arduratzen den bulego teknikoa dugu. Lan talde honetan berrikuntzak egon dira eta kide berriak hasi dira lanean. 2008an ondorengo teknikariak aritu gara Soziolinguistika Klusterrean lanean:

- Asier Basurto
- Belen Uranga (ekainetik aurrera)
- Iker Salaberria. Kudeatzailea
- Isabel Godinez (ekainetik aurrera). Administraria
- Lionel Joly (ekaina bitartean)
- Maite Egaña (ekaina bitartean). Administraria
- Oihana Lujanbio
- Olatz Altuna
- Pablo Suberbiola



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN ORGANIGRAMA



4

Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak

Soziolinguistika Klusterraren misioa

4.1

Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen berreskurapenerako eta normalizatorako soziolinguistika ezagutza garatzea da. Horretarako, azpiegitura, baliabide, eta baldintza egokiak sortzea, esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatzea.

Soziolinguistika Klusterraren bisioa

4.2

Soziolinguistika Klusterra euskararen soziolinguistikan erreferente nagusi izango den erakundea izango da; bertako eta kanpoko eragileekin harremanak izango dituena eta proiektu kooperatiboen bidez eta behar besteko autonomiaz bere bazkideen interesei zein euskararen berreskurapen prozesuaren ezagutza beharrei erantzungo diena.

Soziolinguistika Klusterraren balioak

4.3

1. *Euskararen hizkuntza komunitatea bere osotasunean aintzat harturik jardutea*
2. *Bazkideen interes eta proposamenetatik abiatuz, proiektu kolektiboak garatzea*
3. *Bazkideen jarduera errespetatzea eta indartzea, konkurrentzia saihestuz eta osagarritasunak bilatuz*
4. *Komunikazioa egoki landuta, irudi profesionala ematea*
5. *Ekimen aplikatua arreta bereziz lantzea*
6. *Bazkideek etekinak jasotzea eta neurtzea*
7. *Klusterrak erantzukizun sozialez jokatu du, gizarte mailan bere emaitzak zabalduz*

Soziolinguistika Klusterra mapa estrategikoa

Soziolinguistika Klusterraren Egitasmo Estrategikoa diseinatzerakoan “Balanced Scorecard” edo Gida Panel Integralaren eredu jarraitu dugu, beti ere gurea bezalako erakunde baten ezaugarrietara egokitu.

Eredu horren arabera, abiapuntua aurreko atalean ikusi dugun ikuspegi estrategikoa definitzea izan da. Hori egin ostean, helburu estrategikoak definitu dira lau mailatan banatuta:


Baliabideak: baliabide pertsonal eta materialen atalari dagokio.

Prozesuak: gure lanaren antolaketarako abian jartzen ditugun sistemei eta kudeaketa ereduari dagokio.

Garapena: gure misio eta bisioa lortzeko zer egiten dugun.

Erabiltzaileak eta komunitatea: gure misio eta bisioa lortzeko zer eskaini behar diogun erabiltzaile eta komunitateari.

MAPA ESTRATEGIKOA



Jarraian duzue, Soziolinguistika Klusterrak 2008 urtean garatu dituen proiektuei buruzko informazioa. Gure proiektuak soziolinguistika arloko ezagutza garatzeko zehaztu ditugun lehentasunezko lan lerro batzuen baitan antolatu ditugu. Esan, jarraian, proiektu bakoitzaren oinarriko informazioa topatuko duzuela, hauen inguruko informazioa sakonagoa eskuratu nahi izanez gero, bazkideok, gure webgunean topatu ahal izango duzue eta gainontzeko, proiektuetako koordinatzaileekin harremanetan jartzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Horretarako, proiektu bakoitzaren azalpenaren ondoren adierazi dizuegu proiektuaren koordinatzailea nor izan den eta bere helbide elektronikoa zein den.

6

Garatutako proiektuak

6.1 Datuak bildu eta bateratu

6.1.1 EDB

6.1.2 Arabako datu soziolinguistikoen azterketa

6.2 Gazteen esparrua

6.2.1 ARRUE proiektua

6.2.2 Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa

6.3 Arlo sozioekonomikoa

6.3.1 EREALAN proiektua

6.3.2 Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak bilketa proiektua

6.4 Familia transmisioa

6.4.1 Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa

6.4.2 Bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa proiektua

6.5 Hausnarketa teorikoa bultzatu

6.5.1 Hausnartu. Soziolinguistika sariak

6.6 Ezagutzaren dibulgazioa

6.6.1 Bat Soziolinguistika Aldizkaria

6.6.2 Soziolinguistika Klusterraren webgunea

6.6.3 SOZIOLINGUISTIKAZ berri papera

6.6.4 Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan


6.6.5 Soziolinguistika eskuliburua

6.6.6 Soziolinguistika jardunaldia

Datuak bildu eta bateratu

6.1

Euskararen egoera inguruko azterketak egiteko beharrezko datuak bildu eta hauek, konparatu ahal izateko moduan eskaintzea bilatzen du lan lerro honek. Horretarako, datu biltzea zuzena egiteaz gain, datu berriak biltzeko metodologiak doitzera edota datu bera eskuratzeko erabiltzen diren metodologiak bateratzea dira, besteak beste, aurreikusen ditugun proiektuetarako oinarriak.



6.1.1

EDB

Koordinatzailea: Olatz Altuna
olatz@soziolinguistika.org

EDB euskararen datu estatistikoaren biltegi bat da. Iturri batetik eta bestetik datu asko jasotzen dira eta euskaldunak buruzko datu demolinguistikoak osatu gabe eta sakabanatuak daude. EDBk datu horietako batzuk bildu eta bateratu egin ditu. Horrez gain, Euskal Herri mailako datuak eskuratzeko estimazioak egin dira.

Proiektuaren ekarpenak hiru alderditan laburbil ditza-kegu: lurraldeen zehaztapena, datuen osotasuna eta datuak bateratzeko erabili den metodologia.

Gaur egun lau adierazle nagusiri buruzko datuak aurkezten ditu: euskararen ezagutzari buruzko datuak, erabilerari buruzkoak, euskarak hezkuntzan duen tokia buruzkoak eta eraginkortasun indizearenak (erabilerari zati ezagutza).

2007an aipatutako adierazlearen datuak eguneratze-arekin batera (erabileraren eta hezkuntzako datuak), datu basea sistema berri batean integratu dugu. Horrela, sistema beraren egonkortasuna handitzea-arekin batera, datuen bilaketa erraztu eta datu base-aren erabilgarritasuna hobetu nahi izan dugu. Datu basea ikusteko jo ezazue ondorengo helbidera:
<http://www.soziolinguistika.org/edb/>

6.1.2

Arabako datu soziolinguistikoaren azterketa

Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola eta Asier Basurto
asier@soziolinguistika.org



Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan 2008an abiatutako proiektua dugu hau. Arabako euskararen egoeraren berri eman diezaguketen informazioak bilatu, landu, aztertu eta interpretatzea izango da zeregin nagusia. Horrekin batera, euskararen berreskurapenean aurrerapausoak eman ahal izateko hainbat gogoeta eta iradokizun proposatu eta aurkeztuko dira. Ahalegin horretan, eskura dauden erreferentzi soziolinguistiko teorikoak, teknikoak eta estrategikoak zein beste udal, eskualde edo lurraldeetako eskarmentuak baliatuko ditugu. Horrela, euskararen normalkuntzaren ardura duten Arabako Foru Aldundiko politikariek zein teknikariek euren erabakietan irizpide sendoz horniturik egon daitezten.

Proiektu honetan Iñaki Martínez de Luna ari da zuzendari lanean. 2008an egoeraren azterketa egin ondoren, 2009an jasotako emaitzen arabera, jardunbide posibleak mahai gaineratuko dira.

Gazteen esparrua

6.2

Gazteen esparrua arreta gune bihurtzen ari da azken urteetan. Etorkezineko jendar-tea osatzeko oinarria dira eta azken urteetako ahalegin nagusia, hezkuntza formalaren bidez, euren euskarazko gaitasuna bermatzera bideratu izan da. Denborak erakutsi digu, ordea, hezkuntzaren bidez soilik, nekez euskaldunduko direla belaunaldi berriak eta gainera, jendarte esparru honetako ezagutzak gora egin arren, erabilera ez dela ari erritmo berean hazten. Hortaz, Soziolinguistika Klusterrak ere lehentasunez landu beharreko jendarte esparrua kontsideratzen du gazteena.

6.2.1

ARRUE proiektua

Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola eta Asier Basurto
pablo@soziolinguistika.org



Arrue, EAEko haur eta gazteen eskola-giroko hizkuntza-erabilera ikertzeko sortutako proiektua da. Ikerketa honen helburua eskolako hizkuntza-erabilera zein aldagaiek eragiten duten ikertzea da, edo hobeto esateko, nolako lotura duen eskolako hizkuntza-erabilera aztertzen diren beste aldagaiekin (adibidez: ikaslearen *lehen hizkuntza*, ikaslearen *ahozko gaitasuna*, ikastetxearen zenbait ezaugarri...).

Ikerketa 2004-2005 ikasturtean jarri zen martxan Soziolinguistika Klusterraren eta Jaurlearitzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren bidez.

Aurtengoan datu jasoketa orokorra eta jasotako datuen analisia egin da. Horrekin batera, Arruen 05-07 ikasturtean artean eginiko lana biltzen duen argitalpena (euskaraz, gazteleraz eta frantsesez) prestatu dugu. Bestalde, Jasone Cenoz-ekin lankidetzan "Language, Culture and Curriculum" aldizkarian ikerketa honen inguruko artikulua (ingelesez) argitaratu dugu.

6.2.2

Gazteen erabileraren eragiten duten faktoreen azterketa

Koordinatzailea: Asier Basurto
asier@soziolinguistika.org

2006 eta 2007an gazteen hizkuntza erabileraren inguruan eginda zegoena eta egiteke zegoena "Perspektiba eta prospektiba" proiektuaren bidez identifikatu ostean, *Soziolinguistika Klusterrak*, Gipuzkoako *Urtxintxa* aisialdi eskolak eta *Topagunea* euskara elkarten federazioak osatutako lantaldeak, proiektu berri hau abiatzeko premia ikusi zuten. Ere ez formaleko gazteen hizkuntza erabileraren eragiten duten faktoreak aztertu eta esku hartzerako garaian baliagarria izango den oinarri teorikoa eskaintzea da proiektu honen helburua.

Horretarako, gazteen eta hizkuntzaren esparruen arlo ezberdinetan aditu eta aritu diren pertsonekin osatutako lan talde batek, gaiaren analisi sistemiko faktoriala burutu du 2008ko lehen urte erdian. 2009an, tipologia ezberdineko gazte taldeekin (psikopedagogia ikasleak, aisialdiko begirale-gaiak, gazte guneen erabiltzaileak,...) lanketa saio batzuk burutuko dira, aztergaia zuzenean osatzen dutenek duten pertzepzioa ezagutzeko asmoz. Eta azkenik, pertzepzio honen eta aurrez egindako analisen arteko kontrastea burutuko da.

Proiektuaren emaitza gazteen inguruko ekimenetan hizkuntza erabileraren inguruan kontuan eduki beharrekoak faktore edo alderdi desberdinak ordeintzeko balio duen oinarri teorikoa izango da.



Arlo sozioekonomikoa

6.3

Soziolinguistika Klusterrak arlo sozioekonomikoa lan lerro nagusi gisa kontsideratzeko bi arrazoi nagusi ditu. Batetik, berreuskalduntze prozesuari begira arlo honek duen garrantzia. Argi dago pertsona helduok eguneko denboraren zati handi bat esparru honetan igarotzen dugula. Modu horretan, gure bizitzako zati handi bat lan munduak eraten, moldatzen eta mugatzen du. Honek, beraz, eragin nabarmena du langile guztion euskalduntzean.

Bestetik, Kluster moduan, gure bazkideen premiei erantzuteko zeregina dugu: gure balioetan jasoa dugu "bazkideen interes eta proposamenetatik abiatuz, proiektu kolektiboak garatzea". Hortaz, arlo sozioekonomikoan maila aplikatuan lanean dabiltzan gure bazkideei begira arlo honen inguruko soziolinguistika ezagutza garatzea beharrezkotzat jo dugu.

6.3.1

ERALAN proiektua

Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org

EraLan proiektuan bi lan nagusi egon dira: Laneko esparruan euskararen erabileran eragiten duten aldagaien identifikazioa eta aldagai horietan eragiteko interbentzioak diseinatzeko metodologia zehaztea eta aplikatzea.

2006tik 2008ra bitartean garatu da ikerketa-proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Lan nagusi hauek aurrera eramaten unibertsitateko, administrazioko, euskara planen aholkularitzetako eta sindikatuetako kideez osatutako Garapen Taldea aritu da. Ondorengoek parte hartu dute Garapen Taldean:

J. Inazio Marko (UPV-EHU), Jon Ajuria, Fermin Perez (Bizkaiko Foru Aldundia, Joxean Amundarain, Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia), Eñaut Apaolaza (Emun Koop. E.), Aitziber Madrazo (Lab Sindikatua) eta Elixabet Almandoz (Eusko Ikaskuntza).

EraLan-ek, ekarpen teorikoez gain, lan munduan eragiteko metodologia ere proposatzen du. Egindakoa biltzen duen argitalpen bat osatu dugu emaitza eta topaketa bat ere burutu dugu 2008ko azaroaren 13an. Argitalpena bera (PDF formatuan) eta Topaketari buruzko informazio gehiago eskuragarri dituzue gure webgunean: www.soziolinguistika.org/eralan

Aurrera begira, euskararen erabileran eragiten duten aldagaiak sakonago lantzea da jorratu nahi dugun bidea. Horrela, **2008-2010 urteetan LIDERGOA ikertuko dugu**, modu honetan: Hizkuntza normalizatorako planak onartuta dituzten lan munduko erakundeetan –publiko zein pribatuetan– euskararen erabileran eragiteko lidergoa aldagaia lantzeko metodologia diseinatu eta probatuko dugu.




Arlo
sozioekonomikoa 6.3

6.3.2

Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak bilketa proiektua

Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org



Ezagutzaren Clusterraren “Kudeaketa aurreratuko enpresak” koadernoak oinarritzat hartuta abiatutako proiektua da hau. Proiektu honen helburu nagusia **euskararen normalizazioan emaitza arrakastatsuak izan dituzten erakundeen esperientziak ezagutzera ematea da**. Esperientzia hau formatu irakurterrazean idatzita, erakunde hauek lortutako arrakastaren gakoei buruz gogoeta suspertu eta euskararen normalizazioan baliagarriak diren ikuspegi eta praktikak hedatu nahi dira enpresa, unibertsitate eta administrazio arloan.

Karmele Perezen zuzendaritzapean (HUHEZI) eta Oihana Lujanbiok koordinatuta (Soziolinguistika Klusterra), Zihara Aranbarri izan da erakundeetan elkarriketak egin eta kasuak idatzi dituena (HUHEZI). Bestalde, lan honetarako, Ezagutzaren Clusterreko Javier Zarrabeitia aholkulari izan dugu.

2007an argitaratu ziren aurreneko bi kasuak eta hauetan **ELAY eta EIKA** enpresak aztertu genituen (www.soziolinguistika.org/kasuak). 2008an Bergarako Udala eta IMH institutua aritu gara lantzen eta 2009 hasieran argitaratuko dira kasu berri hauek.



Hausnarketa teorikoa bultzatu

6.5

Hizkuntzaren berreskurapen bidean, argi dago ezagutza aplikatua lantzea ezinbestekoa dela. Baina, ezagutza aplikatu hauek oinarritzko teoria batzuetatik jaso behar du bere funtsa. Oinarritzko edo purua deritzon ikerketa eta hemendik atera litekeen ezagutza garatzea, beraz, behar-beharrezkoa zaigu. Hone-tarako, gune naturala unibertsitatearen ohi da, baina, oraingoz behintzat, esparru honetan soziolinguistika arloaren garapena apala denez, Soziolinguistika Klusterraren erronka da, unibertsitateko irakasleak soziolinguistikaren ikerketa lerro haue-tara erakartzea.



6.5.1

Hausnartu. Soziolinguistika sariak

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

HAUSNARTU deitutako sariak antolatu ditu Soziolinguistika Klusterrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Sari horien helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Deialdi honetan euskal soziolinguistikaren arloan garapen teorikoak lantzen dituzten lan hobereak sarituko dira. Kontuan hartuko dira euskararen gaineko berariazko garapen teorikoak nahiz kanpoan landutako gerapenetatik abiatuta gure hizkuntzaren egoera aztertzeke eta ulertzeke egokitzapenak.

Asmoa hauxe da: dagoeneko euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena izan duten ikerlarien lana bultzatzea eta oraindik harremanik izan ez duten ikerlariak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea. Horrela, soziolinguistikatik bertatik egindako garapen berriak ez ezik, beste adar zientifiko horien ekarpenak ere bultzatzea da sari hauen xedea. Modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teorikoak zabaldu eta aberastuko dira.

2008ko saridunak hautatzeko epai – mahai kideak ondorengoak izan dira: Iñaki Martínez de Luna, EHUKo irakaslea eta BAT Soziolinguistika aldizkariaren argitalpen batzordekoa, Pello Jauregi, EHUKo irakaslea eta Estibaliz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria. Horrela, sari bana-keta abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuz, Martin Ugalde Kultur Parkean buruturiko ekitaldian egin zen:

- Lehen saria hutsik uztea erabaki du epai-mahaiak bere iritziz, jasotako lanek alderdi oso interesgarriak dituzten arren ez baitute bete-betean erantzun soziolinguistikaren ikuspegitik ekarpen berritzaile izate eskakizunari
- Bigarren saria *Erabilera ala ezagutza sustatzeko politikak? Erabilera neurketak oinarri, politikak erabakitzeke metodo bat* izeneko lanari eman zaio. Lanaren egilea Fermín Lazkano izan da.
- Hirugarren saria *Euskara birpentsatu beharra. Ekarpen batzuk antropologiatik*, Jone M. Hernández-ek jaso du.
- Laugarren saria *Eunate Irazabalek eginiko Emakumea eta euskal irakaskuntza* lanari eman zaio, eta
- Bosgarren saria Castillo Suarez-en lanari eman zaio *Nafarroako toki administrazioetako euskararen normalizazioan eragiteke oinarriak* lanarengatik.

Saritutako lan guztiak BAT Soziolinguistika Aldizkariaren 69. zenbakian argitaratuko dira.



Ezagutzaren dibulgazioa

6.6

Soziolinguistikaren inguruan garrantutako ezagutzak hizkuntza normalkuntzari benetako bultzada eman diezaion, beharrezkoa da ezagutza honen dibulgazioa behar bezala lantzea. Dibulgazio lan hau egiteko bi bide nagusi jorratu beharra ikusten dugu. Batetik, argitalpenen bidez, informazioa hedatuaz. Bestetik, formazioaren bidez, ezagutza hori transmitituaz.

6.6.1

Bat Soziolinguistika Aldizkaria

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

Euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten eragileak soziolinguistika eta glotopolitikan jantztea da BAT soziolinguistika aldizkariaren helburu nagusia. Horretarako Euskal Herriko nahiz atzerriko (bereziki Europako) ekarpen esanguratsuak biltzen ditu.

Soziolinguistika alor aski diziplinartekoa denez, aldizkariak ahalegin berezia egiten du aniztasun horri bide ematen, bai gaiei dagokionez, bai egileei dagokionez. Honela, aldizkariaren orrietan jurilinguistikaren katedradun denaren gogoeta sakonak edo normalizazio ekimen bat burutu duen eragile baten azalpen xehea topa dezakezu.

Bere sorreraz geroztik, 1990. urtetik aurrera, urtero batez beste lau zenbaki eman ditu argitara. Jarraian dituzue 2008an zehar argitaratu diren zenbakiak:

- **66. zenbakia:** Teknologi berriak eta euskara
- **67. zenbakia:** Erramun Baxoken omenez
- **68. zenbakia:** Hedabideak eta euskara-plangintza
- **69. zenbakia:** HAUSNARTU: Euskal Soziolinguistika Sariak

Bestalde, Soziolinguistika Klusterrak BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratu diren artikulua (azken laurak izan ezik) edonoren eskura jartzen ditu, bildutako ezagutzaren zabalpena egiteko. Horretarako, bere webgunean (<http://www.soziolinguistika.org/node/3>) eskaintzen ditu.



6.6.2

Soziolinguistika Klusterraren webgunea

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

Soziolinguistika Klusterraren webgunea, egiten dugun lanaren erakusleihu nagusia dugu. Horrela, Bat Soziolinguistika aldizkariarekin batera, gure proiektuen bidez garatutako ezagutza gure bazkideen eta, orokorrean, jendartearen esku jartzeko tresna nagusia dugu.

Bestetik, Soziolinguistika Klusterreko kideei eta proiektuetan parte hartzen ari diren aditu eta bazkideei begira, proiektu bakoitzaren bilakera kontsultatu ahal izateko, proiektuetan sortutako informazioa trukatatu ahal izateko, bileren aktak eta bestelakoak eskuratzeko... aukera eskaintzen du. Horrela, gure proiektuak sarearen abantaila eta aukerak aprobetxatuz garatu ahal izateko tresna ere bada gure webgunea.

Honi guztiari begira, 2008an emaniko urrats nagusiak ondorengoak izan dira:

- Webgunearen itzulpena frantsesera. Lehen esan dugun bezala, gure webgunea, gure lanaren erakusleihu nagusia dugu. Nazioartean ere hala da, noski, eta horregatik, leiho hau beste herrialdeetara zabalik egon dadin, webgunea beste hizkuntzetara itzultzeari garrantzia eman diogu. Aurtengoan frantsesezko itzulpena osatu dugu.
- Proiektuetako informazio osatu eta eguneratu. Proiektu guztien inguruko informazioa eguneratu dugu eta horrekin batera, hainbat proiektuetatik sortutako emaitza edo produktuak eskuragarri jarri ditugu. Besteak beste ondorengoak dituzue eskuragarri: *Gero Bermatzeko*, *oraina ezagutu* Soziolinguistika Jardunaldiko materialak eta bideoak (<http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia>), Normalkuntza Kasu Aurreatuetako argitalpenak (<http://www.soziolinguistika.org/kasuak>), Eralan ikerketa-proiektuko argitalpena (<http://www.soziolinguistika.org/eralan>)...



6.6.3

SOZIOLINGUISTIKAZ berri papera

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

SOZIOLINGUISTIKAZ BERRIPAPER ELEKTRONIKOA euskararen normalizazioarekin loturiko edota soziolinguistika arloko, argitalpen, ikerketa, ekimen, eta abarren inguruko informazioa zabaltzeko sorturiko orri elektronikoa da. Soziolinguistika Klusterrak atondu eta doan zabaldu du orain artean, web bidez eta posta elektroniko mezu bidez, arlo honetan interesa duten guztientzat.

Soziolinguistikaz berripapera euskarri elektronikoan soilik banatzen da, eta formatu laburrean, kasu bakoitzean informazio zabalagoa eskuratzeko dagokion helbide elektronikoaren lotura bertan jarri.

Soziolinguistikaz berripapera bi hilabete behingo maiztasunez 800 bat helbidetara zabaltzen da. Tartean dira udaletako euskara zerbitzuak, euskara elkarteak, erakunde ezberdinetako euskara teknikariak, irakaskuntza arloan normalkuntza plangintzetan dihardutenak, unibertsitateko irakasleak, euskaltegiak...

6.6.4

Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan

Koordinatzailea: Asier Basurto
asier@soziolinguistika.org



UEUko ikastaroek aukera paregabea eskaintzen dute, urtean zeharreko jardun itogarritik distantzia hartu eta soziolinguistikaren inguruko gogoetak eta elkarriketak partekatzen. Horregatik, 2005. urtetik, **Soziolinguistika Klusterrak** urtero probestu ditu ikastaro hauek soziolinguistika arloko gaiak jorratzeko. 2008ko uztailaren 15etik 16ra Baionan burututako edizioan gaia *"Euskararen legeak: esperientzia praktikoak eta aukerak"* izan zen.

Azken hogeita bost urtetan, euskararen legeei dagokienez, EAEn aurre-pausuak izan diren izan arren, ezin gauza bera esan Iparraldea eta Nafarroari buruz. Ikastaro honen bitartez eztabaida bultzatu eta abian dauden legeak kontutan hartuta euskararen erabilera bultzatzeko eta erabiltzeko aukerak aztertu nahi izan ditugu. Horretarako ikastaro honetan batetik aurkezpen teoriko-historikoko izan ziren, Euskal Herriaren gaur egungo egoeraren aniztasuna hobeto ezagutzeko eta lekuan lekuko aukerak eta mugak hobeto ezagutzeko. Bestetik saio praktikoak izango dira eragileen esperientzia ezagutzeko, parte-hartzaileen arteko eztabaida bultzatzeko eta denon artean irtenbide eta aukera berriak sortzeko eta trukatzeko.

6.6.5

Soziolinguistika eskuliburua

Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org

2008an abian jarri den proiektua da. **Helburua soziolinguistikari eta euskal soziolinguistikari buruzko oinarriko eskuliburua euskaraz sortzea da.**

Euskararen normalizazioak suposatzen duen gizarte-eraldaketa prozesu konplexuak, beste gauza askoren artean, ezagutza teorikoa eta teknikoa ere eskatzen ditu. Kontuan hartu behar da soziolinguistikak gaur arte zientzia alor gisa izan duen garapena mugatua dela. Eta horrez gain bertan egin diren ikerketak eta landu diren eredu teorikoen zabalpenerako bideak ere ez direla oso ugariak, ez mundu akademikoan eta ez sozialki.

Soziolinguistikako oinarri teoriko sendagoak dituzten ikasle-irakasleak izateak, eta plangintza lanean ari diren profesionalei oinarri teorikoak zein erreferentziak eskaintzeak aurrerapauso kualitatiboa suposatuko luke, zalantzarik gabe, euskararen sustapen eta normalizazioan. Soziolinguistika Klusterreko kide diren erakundeetako teknikari eta irakasleen aldetik, edota proiektuetan lankide izaten ditugun beste erakundeetako kideen aldetik ere, askotan nabarmendu izan da soziolinguistika eskuliburu landu batek arlo honetarako suposatuko lukeen aurrerapausoa.

Lan talde eta aholkulari talde aditu eta aritua dugu lan honetan gidari. Lan taldean, honako izen hauek ditugu:

- Battittu Coyos (Iker, UPPA)
- Estibalitz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)
- Jon Aizpurua (HPS)
- Jone M. Hernandez (EHU – Antropologia)
- Lionel Joly (Euskaltzaindia)
- Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)



6.6.6 Soziolinguistika jardunaldia

2008ko otsailean, aurreko urtean zehar garaturiko proiektuen berri emateko jardunaldi bat antolatu zuen Soziolinguistika Klusterra: "Geroa bermatzeko, oraina ezagutu". Egun horretan, batetik, bere proiektuetako emaitzarik berritzaile eta deigarrienak plazaratu zituen. Bestetik, soziolinguistikaren arloan erreferentziatzeko diren hainbat aditu hitzaldietan eta mahai-inguruan izan ziren solaskide. Besteak beste: Xavier Vila soziolinguista katalana, Kike Amonarriz, Iñaki Martínez de Luna, *Txillardegi*... izan ziren gure artean.

Honekin guztiarekin, euskararen erabileraren inguruan lanean ari direntzako erakargarri izango diren hitzaldi eta tailerrak eskaintzea nahi izan genuen.

Bertaratutako jendeari parte hartzeko aukera eskaintzea ere bilatu genuen. Horrela, areto nagusian eskaintako hitzaldiaz gain, tailerrak eta areto txikiagoetan eskaintako hitzaldiak izan ziren.

Azkenik, ezagutzaren transmisiorako gune soil izatetik, jardunaldia, harreman gune izatea ere bilatu genuen.

Asmo horiek oinarri hartuta antolatu zen jardunaldia eta 100 parte hartzailetik gora bertaratu ziren. Parte hartzaileen izaerari dagokionez, ondorengo arloetako kideak bildu ziren: administrazioko euskara teknikariak, hezkuntzan, irakasle, arduradun zein normalkuntza teknikariak, aholkularitza enpresetako kideak, aisialdi taldeetakoak...

Jardunaldi honen emaitza gisa, berriz, ondorengoak azpimarra genitzake:

- Bertan emaniko hitzaldien materiala eta bideoak zabaltzea: jardunaldian hitz egin eta landu ziren gaiak Soziolinguistika Klusterreko webgunean (ikus <http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia> atala) daude ikusgai
- Soziolinguistikako adituen edo erreferentziatzeko pertsonen hitzaldiak eskaintzea: Soziolinguistikako erreferentziatzeko pertsonak jardunaldi hauetara biltzea. Horrela, euren ezagutza hitzaldien bidez transmititzeko eta eurekin harremanak lantzeko gune bat eskainiaz.
- Soziolinguistika lantzen duten arlo desberdinentzako eskaintza osatu: administrazio munduan, enpresa munduan, hezkuntzan... hizkuntza normalkuntza lanean dabiltzanezi begira zer eskainia izan genuen. Horrela, 2008ko jardunaldian gai aniztasuna nabarmendu beharreko puntua izan zen. Oro har, euskararen erabileraren gaineko jarduna izan bazen ere, gai hau ikuspuntu eta arlo ezberdinetan nola landu den aztertu baitzen: hezkuntzan, aisialdian, lan-munduan eta kalean.



Soziolinguistika Klusterraren misioan gure egitekoen artean jaso dugu, eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatzea. Gainera, gure jarduna zehazteko, bazkideen behar edo premiei erantzutea ezinbestekoa da. Bestalde, soziolinguistikaren ezagutzaren garapenean garrantzitsuak izan daitezkeen hainbat eragilek gure erakundearen berri gertutik, aurrez-aurre jasotzea beharrezkoa dela deritzogu.

Aurreko guztia aintzat hartuta, 2008rako harreman plana osatu genuen. Harreman plan hau bi ataletan bereizi genuen. Bazkideekiko harremanen inguruko zehaztapenak jasotzen dituen barne harreman plana batetik; eta bazkide ez diren eragileekiko harremanen ingurukoak jasotzen dituen kanpo harreman plana, bestetik.

Horrela, jarraian biltzen ditugu 2008an zehar ildo honetan eman ditugun urratsak nagusiak:



Durk Gorter

• **Bazkideekin bilerak:** ondorengo bazkideekin bildu gara.

- Tolosako Udala. Euskara Zerbitzua
- Artez Euskara Zerbitzua koop.
- Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- Emun Kooperatiba Elkarte
- Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

Bilera hauetan, gure jardueraren berri emateaz gainera, euren asmoen eta beharren berri jaso genuen. Horrela, aurrera begira, Soziolinguistika Klusterrak garatu beharreko lankidetzak eta proiektu berrietarako aukerak aztertuz.

• **Bazkideentzako berripapera:** bazkideek Soziolinguistika Klusterraren inguruko berri zehatzagoa izan dezaten, bazkideen berripapera osatu genuen iaz. Aurten berripaperaren bigarren eta hirugarren zenbakia banatu ditugu.

• **Kanpo eragileekin bilerak:** ondorengo erakundeekin egin ditugu bilerak:



Xavier Vila

- | | |
|---|---|
| 1. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza | 9. Donostiako Udala. Euskararen Udal Patronatua |
| 2. Gipuzkoako Foru Aldundia | 10. Caja de Ahorros de Navarra (CAN) |
| 3. Garabide | 11. Federacion de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras (FCAVN) |
| 4. Bizkaiko Foru Aldundia | 12. Arabako Foru Aldundia (AFA) |
| 5. Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) | 13. Euska Herriko Ikastolen Konfederazioa |
| 6. Getxoko Udala | 14. Nafarroako Unibertsitate Publikoa |
| 7. Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Zuzendaritza | 15. Euskarabidea |
| 8. Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) | |

Bilera hauen helburua, garatzen ari ginen jardueren eta esku artean genituen asmoen berri jasotzeaz gain, aurrera begira izan genitzakeen elkarlan aukerak aztertzea zen.

Nazioarteko harremanak: Soziolinguistika Klusterrak, beharrezkotzat du kanpoan egiten ari denaren berri ezagutu, eta atzerniko aditu eta eragileekin harremana lantzea. Bi arlo hauetan, 2008an, zenbait harreman landu ditugu. Besteak beste, Xavier Vila soziolinguista eta Xarxa CRUSCAT erakundeko Zuzendariarekin (<http://www.demolinguistica.cat/web/>), gure jardunaldira gonbidatu eta elkarren berri izateko aukera izan genuen. Bestetik, Garabide Elkarteak antolatutako II. Truke Programaren barruan, Soziolinguistika Klusterrean Ameriketako herri indigenetako ordezkarien (Guatemalatik, Bolibiatik, Ekuadorretik, Wallmaputik eta Paragwaitik) bisita jaso genuen. Aukera paregabea izan da euren errealitatea hobeto ezagutu eta gure esperientziaren berri eman ahal izateko. Azkenik, Durk Gorter, Ikerbasque-ko ikerketa katedraduna EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia sailean Eralan-eko lan topaketetan izan genuen eta bere eskutik Frisiera eta Galesaren egoeraren berri izan genuen.



8

Lankidetzak

Jakin Aldizkaria: Lionel Joly Jakin aldizkariko kolaboratzailea izan da, Egunen Gurpilean ataleko soziolinguistikari buruzko artikulua osatu ditu.

Larrun aldizkaria: Larrun aldizkariko 125. zenbakia "Euskararen osasuna. 25 urteko balorazioa" izan zen. Horretarako, hainbat aditurekin mahai ingurua egin zuten. Hauen artean, Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko teknikariak parte hartu zuen (<http://www.argia.com/argia-astekaria/2156/euskararen-bilakaera-25-urtean>).

Language, Culture and Curriculum aldizkaria: Arrueko ikerketa proiektuaren nondik norakoak azalduaz, Iñaki Martínez de Lunak eta Pablo Suberbiolak artikulua bat argitaratu zuten Language, Culture and Curriculum aldizkarian (<http://www.multilingual-matters.net/lcc/Q21/1/default.htm>)

9

Eskaintako zerbitzuak

Soziolinguistika Klusterrak, proiektu desberdinak garatzeaz gain, hainbat ikerketetan landu eta garatu duen ezagutza zerbitzu desberdinen bidez baliatzeko aukera eskaini du. Horrela, 2008 hainbat udaletan Herrietako Kale Erabileraren Neurketak eta Euskaini neurketak burutu ditugu.

Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak



9.1

Hainbat udaletatik, herriko euskararen kale erabilera hobeto ezagutzeko premia adierazi digute. Honi erantzunez, Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko 50 udal baino gehiagotan neurketak egiten jaso duen esperientzia probestu eta herriko kale erabileraren hainbat neurketa burutu ditu 2008an. Hemen duzue, zehazki zein herritan egin ditugun aipatutako neurketak.

1. Elorrio
2. Lekeitio
3. Lezo
4. Aramaio
5. Aretxabaleta

Euskaini Neurketak

9.2

Euskaini, euskarazko eskaintzaren adierazlea, Kataluniako Consorci per a la Normalització Lingüística-ko teknikariek sorturiko Ofercat adierazlean oinarrituta SEI Elkarteak prestaturiko egokitza-pena da, geroztik Soziolinguistika Klusterrak bere egin duena. Gizartearen sektore ezberdinetan (administrazioan, ekonomian, komunikabideetan, etab.) jasotzen dugun hizkuntza eskaintza du aztergai; hau da: herritar batek jasotzen duen hizkuntza errealtatearen zein proportzio dagoen hizkuntza jakin batean (errotuluak, idazkiak, ahoko komunikazioa...)

Euskaini-ren bitartez, konplexua den errealtate bat (herri bateko hizkuntza eskaintza) modu sinplean eta indize zehatzen bidez adierazi dezakegu, modu horretan bere bilakaera ere aztertzeke aukera izanik.

2008an Arrasaten eta Elgoibarren egin dugu Euskaini neurketa. Herriko landa lanaren arduraduna Ainhoa Lendiz izan da Elgoibarreko kasuan eta Nerea Zubia, berriz, Arrasaten.

Soziolinguistika arloko sarea eratzen

Soziolinguistika Klusterra sortu zenean eginiko gogoetetan nabarmentzen ageri zen soziolinguistikaren inguruan lanean ibili bazebiltzela hainbat erakunde eta norbanako. Klusterraren baitan ikusten genituen egitekoen artean, hauek guztiak proiektu desberdinetan egituratzen joatea zen. Hauekin guztiekin soziolinguistika arloko sarea eratzen joatea, hain zuzen. Bide honetan 2008 ere zenbait urrats eman dira. Horren erakusle, urtean zehar Klusterrarekin harreman mota bat edo beste izan dutenen zerrenda doakizue jarraian:

Izen deiturak	Erakundea	Harreman mota	Proiektua
1. Iñaki Martínez de Luna	Eusko Ikaskuntza	Proiektu zuzendaria Proiektu taldeko kide Hizlaria Aholkularia	- ARRUE proiektua - Arabako datu soziolinguistikoen azterketa - Bat Soziolinguistika Aldizkaria - Hausnartu proiektua - I. Soziolinguistika jardunaldia - Soziolinguistika Eskuliburua
2. Battittu Coyos	René Descartes Unibertsitatea	Proiektu taldeko kide Hizlaria	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - Soziolinguistika Eskuliburua - Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
3. Pello Jauregi	Kuadrillategi	Aholkularia	- Bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa proiektua - Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa - Hausnartu proiektua
4. J. Inazio Marko	Eusko Ikaskuntza	Zuzendaria Hizlaria	- ERALAN proiektua - ERALAN proiektua - I. Soziolinguistika jardunaldia
5. Jone Miren Hernandez	EHU-UPV. Antropologia Saila	Proiektu taldeko kide	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - Soziolinguistika Eskuliburua
6. Estibalitz Amorrortu	Deustuko Unibertsitatea. Filologia Saila	Proiektu taldeko kide	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - Soziolinguistika Eskuliburua
7. Lionel Joly	Euskaltzaindia	Proiektu taldeko kide	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - Soziolinguistika Eskuliburua
8. Joxean Amundarain	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide Aholkularia	- ERALAN proiektua - Soziolinguistika Eskuliburua
9. Mikel Irizar	Gipuzkoa Donostia Kutxa	Proiektu taldeko kide Hizlaria	- ERALAN proiektua - Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
10. Alex Mungia	HABEko teknikaria	Proiektu taldeko kide Hizlaria	- Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa - I. Soziolinguistika jardunaldia
11. Malores Etxeberria	Hernaniko euskara teknikaria	Proiektu taldeko kide Hizlaria	- Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa - I. Soziolinguistika jardunaldia
12. Iñaki Artola	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	- ARRUE proiektua - Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa

13. Nekane Larrañaga	EHU-UPV. Soziologia I. Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
14. Juanito Etxeberria	EHU-UPV. Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
15. Mikel Zalbide	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	ARRUE proiektua
16. Gotzone Elu	Hezkuntza Saila. IRALE	Proiektu taldeko kide	ARRUE proiektua
17. Santos Izagirre	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	ARRUE proiektua
18. Jokin Larrañaga	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	ARRUE proiektua
19. Maria Jose Azurmendi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Proiektu taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
20. Nekane Jausoro	EHU-UPV. Soziologia II Saila	Proiektu taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
21. Inma Muñoa	Gipuzkoako Ikastolen Elkartea	Proiektu taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
22. Pablo Sotés	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Proiektu taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
23. Jon Aizpurua	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza	Proiektu taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua
24. Paula Kasares	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Proiektu taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua
25. Amaia Antero	Topagunea. Euskara Elkarten Federazioa	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
26. Julen Arexolaleiba	HUHEZI	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
27. Xabier Erize	Nafarroako Kutxa (CAN)	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
28. Estibalitz Alkorta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektu taldeko kide	Hausnartu proiektua
29. Xabier Elortza	HABEko teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa
30. Gema Loinaz	Kultura Saila. HPSko teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa
31. Iñaki Arruti	Lasarte-Oriako euskara teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko familia bidezko transmisio programa
32. Eñaut Apaolaza	Emun Kooperatiba Elkartea	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
33. Elias Zumalde	Emun Kooperatiba Elkartea	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
34. Juanjo Ruiz	Emun Kooperatiba Elkartea	Hizlaria	ERALAN proiektua
35. Jon Ajuria	Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
36. Fermin Perez	Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
37. Nekane Jauregi	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
38. Aitziber Madrazo	LAB sindikatuko euskara planen arduraduna	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua



39. Elixabet Almandoz	Eusko Ikaskuntza	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
40. Nekane Goikoetxea	Andoaingo Udala	Zuzendaria	ERALAN proiektua
41. Maider Gaztaka	Artez Aholkularitza	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
42. Iزارo Ugalde	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
43. Imanol Miner	Emun Kooperatiba Elkarte	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
44. Idoia Aldekoa	Elhuyar Aholkularitza	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
45. Mikel Urdangarin	Ahize – AEK	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
46. Durk Gorter	Ikerbasque-ko ikerketa katedraduna	Hizlaria	ERALAN proiektua
47. Pilar Kaltzada	Innobasque-ko komunikazioa zuzendaria	Hizlaria	ERALAN proiektua
48. Juanjo Arrospeide	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Hizlaria	ERALAN proiektua
49. Daniel Hermosilla	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Hizlaria	ERALAN proiektua
50. Galder Lasuen	Euskalit	Hizlaria	ERALAN proiektua
51. Alazne Mujika	Deustuko Unibertsitatea. Giza Zientzien fakultatea	Hizlaria	ERALAN proiektua
52. Maite Altuna	Deustuko Unibertsitatea. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Hizlaria	ERALAN proiektua
53. Itziar Navarro	Deustuko Unibertsitatea. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Hizlaria	ERALAN proiektua
54. Aurkene Redondo	Enbor kontsultoreak	Hizlaria	ERALAN proiektua
55. Abel Irizar	Emun Kooperatiba Elkarte	Hizlaria	ERALAN proiektua
56. Fermin Lazkano	IMH Institutua	Hizlaria	ERALAN proiektua
57. Xabier Isasi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Hizlaria	I. Soziolinguistika jardunaldia
58. Iñaki Eizmendi	Ebete Elkarte	Hizlaria	I. Soziolinguistika jardunaldia
59. Jose Luis Alvarez, Txillardegui	UPV – EHUko irakasle emeritua	Hizlaria	I. Soziolinguistika jardunaldia
60. Kike Amonarriz	Soziolinguistikalaria	Hizlaria	I. Soziolinguistika jardunaldia
61. F. Xavier Vila i Moreno	UB. Soziolinguistika. Zuzendaria Xarxa CRUSCATEko	Hizlaria	I. Soziolinguistika jardunaldia
62. Karmele Perez	Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI	Proiektu zuzendaria	Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak
63. Zihara Aranbarri	Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI	Proiektu taldeko kide	Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak
64. Javier Zarrabeitia	Ezagutzaren Clusterra	Aholkularia	Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak

65. Sonia Perez	Euskara Elkartearen Topagunea	Proiektu taldeko kide	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
66. Jaime Altuna	Gipuzkoako Urtxintxa Eskola	Proiektu taldeko kide	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
67. Helena Baraibar	Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	Aholkularia	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
68. Jon Mikel Fernandez	Xirika aldiakaria	Aholkularia	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
69. Joana Mendiburu	Harman komunikazio enpresa	Aholkularia	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
70. Eneko Barberena	Txatxilipurdi Elkarte	Aholkularia	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
71. Olatz Zabaleta	Tafallako Udaleko euskara teknikaria	Aholkularia	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
72. Iulen Urbiola	Euskararen Kultur Elkargoa	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
73. Joseba Intxausti	Euskaltzaindia	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
74. Iñaki Agirreazkuenaga	EHU – UPVko Zuzenbide katedraduna	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
75. Patxi Saez	Azpeitiako Udaleko euskara teknikaria	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
76. Erramun Osa	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinazio Zuzendaria	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
77. Arantza Haranburu	Hizkuntza Eskubideen Behatokia	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
78. Helene Armentia	Elhuyar Aholkularitza	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
79. Lur Etxeberria	Elhuyar Aholkularitza	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan

Ilusioa sorrarazten du, urtez urte lankide izan ditugunen zerrenda nola doan hazten ikusteak. 2005ean 40 lagun bildu genituen gure proiektuen inguruan eta 2008an berriz ia 80 lagun izan ditugu lankide. Lerro hauen bidez, gure esker ona adierazi nahi genieke. Euren laguntzarik gabe Soziolinguistika Klusterrak ezingo lituzke garatu dituen proiektuak aurrera eraman eta espero dugu aurrerantzean ere soziolinguistika ezagutza garatzen eta zabaltzen jarraitzeko, bidelagun izango ditugula.

Urteko helburuak eta balantzea

Ondorengo taulan jaso ditugu esparruz esparru
2008rako jarri genituen helburuak:

Erabiltzaile / Komunitatea

- Erakunde estrategikoetatik 2rekin lankidetzaren bat lortzea
- Unibertsitateko 10 irakasle gurekin lankidetzan aritzea
- Erakunde estrategiko bat bazkide egitea
- Bazkide diren 9 erakunderekin bilera egitea
- Garatutako proiektuen ondorioz, pertsona juridiko diren bazkideek gutxienez bi etekin identifikagarri jaso izana
- Pertsona juridiko diren bazkide guztiek intereseko duten proiekturen bat garatu izana
- Pertsona juridiko diren bazkide guztiek gure ekitaldiren batean parte hartzea
- Pertsona juridiko diren bazkideen asebetetze-indizeak 6tik gorakoak izatea, 10eko eskalan
- Pertsona juridiko diren bazkideen artean %75ak gutxienez proiektu talde batean parte hartu izana
- Urtean zehar 7 argitalpen zabaltzea
- Urtean zehar gutxienez, 2 jardunaldi ireki antolatzea
- Urteko jardunaldian 100 lagun biltzea edo deitutakoen %30
- Hemerotekan 4 prentsa agerraldi desberdin biltzea
- Antolatutako ikastaroen eta jardunaldien balorazioa 6tik gorakoa izatea

Garapena

- Garatutako proiektuen lorpen-indizeak 6tik gorakoak izatea
- Ezagutza teorikoari lotutako argitalpen bat egitea
- EDBko adierazleen %100 eguneratua edukitzea
- Euskararen egoerari buruzko datuen inguruan gutxienez lan saio bat egitea
- Metodologia berriak sortu edota egokitzea
- Epe ertaineko (2 urte gutxienez) egonkortasuna duten lan lerro kopurua

Prozesuak

- Abiatutako proiektuetatik zenbatak duten diseinu txostena egina
- Urtean zehar diseinu txostenaren inguruan eginiko balorazioa
- 5Sak eta Berrikuntza agenda garatzea
- Proiektuetan eta bulego lanetan pasatako dedikazioa orekatua izatea
- Adierazle orokorren errebisioa kopurua zuzendaritzan (urtarrila, maiatza eta urrian) eta bulegoan (maiatza eta urrian)

Baliabideak


- Urteko balantze ekonomikoan defizitik ez izatea
- Langileen asebetetzea oro har 6tik gorakoa izatea
- Urte amaieran hitzarmenean jasotako orduetatik gora sartutako ordurik ez izatea
- Proiektuetako aurreikuspenekiko desbideratze ponderatuak %3a ez gainditzea
- Zuzendaritzaren eta bulegoaren arteko komunikazioari buruzko balorazioa 6tik gorakoa izatea
- Langileen trebakuntzan, bakoitzak (egun osoko jardunaren proportzioan) gutxienez 55 ordu egin izana lanordutan
- Finantzaketa publikorik gabe (edo zati txiki batekin) bi proiektu bideratzea
- Finantzaketa pribatuaren ekarpena urteko aurrekontuetan %10 izatea
- Gure lana misioarekin koherente izan den, bulego eta zuzendaritzaren balorazio

Adierazleen balantzea 11.1

Jarritako helburuen inguruko balantzeak berriz, ondorengo grafikoetan islatu ditugu:

Adierazleei begiratuta esan dezakegu, urte honetarako jarritako helburu gehienak bete ditugula. Zehazki, helburuen %65 ia erabat osatu ditugu eta helburuen %20ean bete maila %50etik gorakoa kontsideratu dezakegu. Horrela, 34 helburutatik 5 helburu geratu zaizkigu batere garatu gabe. Ikuspegi desberdinetako helburuak edo helburu multzoak aztertzen baditugu, ikusi dezakegu, *Erabiltzaile eta Komunitatea* atalean aurreko urteekiko urrats esanguratsua eman dugula helburuen betetze mailari dagokionez. Batez beste, helburuak %81ean bete dira multzo honetan. Ohikoa dugunez, *Baliabideak* multzoan dugu batzuetan besteko helburuen betetze maila altuena (%86), baina, beste multzoetan ere batzuetan hau %70etik gorakoa da. Zenbakietatik harago, bai bulegoan eta baita zuzendaritzan eginiko balorazioaren arabera, oro har, Soziolinguistika Klusterraren urteko jardueraren balorazio positiboa egin dugu. Horretan, urrats azpimarragarria izan da otsailan izandako jardunaldia. Klusterraren jarduera ezagutzera eramateko aukera paregabea eskaintzeaz gainera, soziolinguistika arloko kideok orain arteen izan ez dugunnen bilgune bat izateko aukera eman baitzuen.


Erabiltzailea eta komunitatea



Daturik ez duten adierazleak

Bazkideen intereseko proiektu kopurua


Garapena




Daturik ez duten adierazleak

Garatutako proiektuen lorpen-indizeak

(Barne) Prozesuak



Baliabideak (pertsonal eta finantzak)



Daturik ez duten adierazleak

Gure lana misioarekin koherentea izan denari buruz zuzendaritzaren eta langileen balorazioa Zuzendaritzaren bulego eta euren arteko komunikazioari buruzko balorazioa